



# **IBILBIDEAK**

**motorrean Araban barna**

# IBILBIDEAK

motorrean Araban barna

- *Hegoalderantz, lasai* Or.: 4-11
- *Iparralderantz, lasai* Or.: 12-21
- *Haranak, Lautada eta Mendialdea* Or.: 22-39
- *Gazteluak eta ardoa* Or.: 40-53





# IBILBIDEA: Hegoalderantz, lasai

## BADAKIZU ARABA DELA N-1 ERREPIDEKO ERREIAK BIKOIZTUTA DAUDEN LURRALDE BAKARRA?

*Iparraldetik bazatoz, minutu batzuetan zeharkatuko duzu Araba. Baina, inorako presarik ez badaukazu...*

## ...ZERGATIK EZ DUZU ZEHARBIDEA HARTZEN BIHURGUNE BAZUK GEHIAGO GOZATZEKO ETA GU HOBETO EZAGUTZEKO?

Olatzagutiatik bazatoz, N-1 errepidetik, bidearen alboetan basoz estalitako mendiak eta harkaitz malkartsuak ikusiko dituzu. **Egino** parera heldutakoan herri horretara doan A-3012 errepidea hartzea erabakitzen baduzu, N-1 errepidearekiko paraleloan ibiliko zara, **Ilarduia** eta **Albeniz** zeharkatuko dituzu eta **Araia**ko bidegurutzera helduko zara. Ez zalantzarik egin! Zoaz herri horretara eta Aizkorri-Aratz Parke Naturala ezagutzeko abiagunean egongo zara.



**Zirauntza ibaiaren sorburua (Aizkorri-Aratz Parke Naturala).**



## IBILBIDEKO TOKIAK

1. Araia **A-3012** **A-3014** **A-3002**  
(Aizkorri Aratz Parke Naturala)
2. Uribarri Ganboako urtegia
3. Vitoria-Gasteiz **N-240** **N-622** **N-102**
4. Añanako Gatz Harana **A-1** **A-2622**
5. Fontecha **A-2625**
6. Miranda de Ebro **A-2122**

Luzera: 104 km



## Aizkorri-Aratz Parke Naturala

20 mila hektarea inguru pago eta konifero, hainbat animalia espezie, artzaintza eta antzinako ikazkinen eraikinak. Gainera, hemendik ikusten ez den aldean, Gipuzkoan, **Arantzazuko Santutegia** dago.

Baina hori urruntxo joatea izango litzateke. Ibili zeure erara nahi duzun beste denbora! Gosetzen bazara, **Araia** toki egokia da jangura berdintzeko; bestela, aurrera egin dezakezu eta bihurgunez bihurgune **Vitoria-Gasteizera** heldu. Goazen! Itzuli A-3012 errepedera eta luze gabe **Zalduendo-**

ra iritsiko zara; hemen-txe jaio zen Vitoria-Gasteizko jaietako Zeledon ezaguna.

Errespetatu itzazu herri-guneetako tartea eta gozatu **Arabako Lautadako** asfaltoa, nahiko ona dena, **Ozaetaraino** "dukateatzeko". Ikuspena ondo aprobetxatzen baduzu, 4. martxaz baliatu ahal izango zara frenoei gutxitan eragiteko eta gasolina gutxi erretzeko. Gainera, adi, Arabako urtegietatik hurbil zaude eta.

**Uribarri Ganboako urtegia.**

**Ozaetatik** irten eta 90 graduko bira egin behar duzu eskuinera A-3014 errepidea hartzeko. Errepide honen zoruak hobeto heltzen dio motorrari. **Marieta** zeharkatuko duzu eta **Landara** helduko zara; ezkerrean **Uribarriko** parkea eta urtegia dituzu, ederrak biak ala biak.

## Uribarriko urtegia

**Landako** bidegurutzean ezkerrera jo eta A-3002 errepide hartzen baduzu, motorrean eta bizikletan ibiltzeko **Arabako** ibilbide klasikoa aurkituko duzu: urtegiko errepidea. Bide osoan kontuan hartzeko moduko hiru bihurgune baino ez daude. Berriz ere motorraren potentzia aprobetxatu beharko duzu bidaiaren gozatzeko

“on-off”en tentaldira erori gabe. Klub nautikoa ikusiko duzu, eta gero **Uribarri-Ganboako** hondartzara, presako begiratkia, **Arroiabe**, **Mendibil** eta **Durana**, eta halakoren batean, konturatu ere egin gabe, **Vitoria-Gasteizen** izango zara.

Ostera, **Aizkorri-Aratzen** barna ibiltzea eta **Araian** jatea erabakitzen baduzu, **Vitoria-Gasteizko** erdigunea azkarrago bisitatu beharko duzu. Bestela, jateko ordua dugu. Joan hiriko “erdialdera” eta ibili apur batean **Andre Maria Zuriaren** plazaren inguruko **Erdi Aroko** itxurako kaleetatik.

## Vitoria-Gasteiz

Nolanahi ere, gogoan eduki gero **Vitoria-Gasteizko** hegoaldeko irteera aurkitu behar duzula. Erraza da! Katedral berriak eta Micaela Portilla eta Gaztelako Atea kaleek hiritik aterako zaituzte Prado kaletik **Armentiarantz**, eta ondoren N-102 errepidea hartu ahal izango duzu eta Madril-Burgoserantz jo. Ez pentsa, baina, berriz ere N-1 errepideko zuzen amaiezinen jokoan hasiko garenik! Oraindik makinatxo bat bihurgu-ne daukagu aurretik!

Ziztu bizian pasatu zara **Langraiz Okatik**, errepideak hiru errai baititu, eta hurrengo jomugaren seinalea ikusiko duzu: Gatz Harana.



Andra Maria Zuriaren plaza, Vitoria-Gasteiz.



Gesaltza Añana.

## Gatz Harana


Hartu A-2622 errepide-rako irteera: **Ollabarre, Montevite, Pobes.**

Hamar bat kilometro dira, baina azkar asko joango dira. Trenbidea-ren gaineko pasagunea zeharkatu ondoren berriz ere arretaz gidatu beharko duzu La Tejeran gora eta behera.

Asfalto ederra, bi ferra bihurgune, pare bat bihurgune itsu eskuinera (segidan), beste bi ferra bihurgune eta akabo, heldu gara **Gesaltza Añanara**. Ezinbesteko geldialdia!

Heldu da atsedean hartzeko ordua; izan ere, aurrean dugun diapiroan dauden larrainetan historiaurreko itsasoak utzi zuen urre zuria batu da azken 7.000 urteetan.





*Bisita amaitu ondoren atzera errepidera. **Espejoko** bidegurutzeraino jaitsi behar da eta han ezkerrara jo A-2625 errepidetik. Bidean ez dago bihurgune gaitzik, asfaltoa ondo dago eta ikuspena ere ona da; beraz, nahi erara gidatu ahal izango duzu.*

*Orain xedea Burgosko **Miranda de Ebro** herria da, N-1 errepidera itzuli behar baituzu. Lehenago, nolana, **Larrazubiko** bidegurutzean ezkerrera egingo duzu bira (bihurgune erraza) eta A-2122 errepidetik **Fontechara** joango zara Orgazko kondeen dorrea mirestera; dorre hau Gesaltza Añanako gatzaren merkataritza kontrolatzeko eraiki zuten XIV. mendean, eta egun birgaitzeko lanak egiten ari dira.*

A person wearing a helmet and dark clothing is riding a motorcycle on a paved road. The motorcycle is dark-colored with a large wind deflector. The road has white lane markings. The background shows trees and a clear sky. A white text box is overlaid on the bottom right of the image.

**GERO, KILOMETRO BATZUK EGIN ETA MIRANDA DE EBRORA IRITSI-KO ZARA; HANDIK AURRERA JARRAITU AHAL IZANGO DUZU, BAINA ARABAKO TXANGO HAU GOGOAN DUZULA, NOIZBAIT ITZULI ETA ARABA EZAGUTZEN JARRAITU BAZENU ERE. ARGI KEINUAK!**

# IBILBIDEA: Iparralderantz, lasai

## **MOTORREAN ZOAZ PENINT-SULAREN IPARRALDERANTZ?**

*Logroñora joan zara eta pintxoz pintxo ibili zara Laurel kalean gora eta behera. Badakizu Logroñotik Bilbora bitartean hainbat errepide azkar daudela, baina ez daukazu presarik eta begien aurrean Arabako sarbidea duzu, Arabako Errioxa, hainbat gauza eskaintzen dizkizun lurraldea, gauza asko ikusteko eta zuri gehien gustatzen zaizuna: bihurgune ederrak eta autobia gutxi.*

## **AURRERA, BADA!**





### IBILBIDEKO TOKIAK

1. Lapuebla de Labarca **N-232a** **A-4202**
2. Elciego **A-3216** **A-4208**
3. Guardia **A-3210** **N-232a**
4. Errioxako begiratokia **A-2124** **N-232a**
5. Urizaharra **A-2124** **BU-750**
6. Vitoria-Gasteiz **A-2124**
7. Uribarri Ganboako urtegia **A-3002**
8. Legutioko urtegia **A-627** **A-3006**
9. Murgia **N-240** **A-3608** **A-3610**
10. Amurrio **A-3600** **A-624**
11. Laudio **A-625**

Luzera: 152 km



## LOGROÑOTIK IRTETEKO, INGURATU ALDE ZAHARRA GUARDIARANTZ. N-232 ERREPIDEA HARTU BEHAR DUZU


*Noranzko biko bidea da, baina azkarra. Oionetik pasatuko zara (kontuz abiadura mugekin), eta gero Asatik eta El Campillarretik.*

## HONEZKERO IKUSIKO ZENITUEN ALDE HONETAKO UPELTEGI EDERRETAKOREN BAT!

*El Campillarretik igaro ondoren ezkerreara jo behar da bidegurutzean: munduan den ardo lurralderik hoberenean sartuko zara. Hurrengo xedea A-4202 errepidea da, Lapuebla de Labarcara joateko.*

## Lapuebla de Labarca

*Galtzada estutu egingo da eta zorua apur bat narriatuta dago, baina mahasti arteko ikuspena ezin hobea da; ez duzu egin behar besterik bihur-gune zabalak lotu baino Lapueblara heltzeko. 180 graduko bira handia eginda herrian sartuko zara; gero A-3216 errepiderantz jarraitu behar duzu. Ahal duzunean, jo ezkerreara kale nagusian sartzeko. Ezkerreara egin, berriro ezkerreara eta Berria esaten dioten kaletik Elciegora bidean hasiko zara A-4208 errepidetik.*





**Upeltegia eta mahastiak.**



Guardia, goitik.

## Elciego

**Elciego**n ikuspegiak ora-in artekoak bezalakoak dira, baita erritmoa ere; luze gabe Frank Gehryk diseinatu zuen titaniozko upeltegiaren distirak ikusiko dituzu. Gelditu,

mirestu, gozatu gastronomia edozein jatetxetan eta gero jarraitu A-3210 errepidetik **Guardiarantz**; hau ere ardoaren hiriburua da, eta gelditzeko moduko tokia.

## Guardia

Dena dela, zure xedea **Araba** hegoaldetik iparrera zeharkatze da: Sartu N-232 errepidean eta, maldan behera zoazela, **Guardiatik** irtengo zara. Herritik irten ondoren berriz ere upeltegi

ikusgarriak izango dituzu ezker-eskuin (eskuineko bat Calatravak diseinatua, esaterako); Toloño mendilerroarekiko paraleloan ibiliko zara eta laster **Lezako** bidegurutzera iritsiko zara.



Herrerako mendatea.

## Errioxako begirato

**Lezako** bidegurutzean eskuineko bidea hartu behar duzu; ezkerrean Herrera mendate ezaguna edukiko duzu. A-2124 errepidea gozagarria izango duzu: mendatea tekniko da eta



Urizaharra.

kia

geldiro hartu beharreko ferra bihurgune pareare dago. Ekin gogotsu aldapari eta Errioxako begiratokira helduko zara. Gelditu, begiratu atzera eta ikusi begi kol-

pe bakar batez ardoaren lurralde osoa. Jantzi kaskoa berriro eta jaitsi Herrerako mendatea; kontuz ibili hezeguneeekin eta kontraperalte itsuekin (bat edo beste).

## Urizaharra

**Urizaharrera** bidean, laster zuhaiztiek lekua utziko diote Gaztelakoaren antzeko paisaiari. Izan ere, Burgosen sartuko zara, Arabaren muinean dagoen **Trebi-**

**ñuko** enklabean. **Ventas de Armentian** eskuinera jo behar duzu eta BU-750 errepidea hartu; **Uzkiano** eta **San Vicentejo** atzean utzitakoan BU-750 zena A-2124

bihurtuko da eta azkar igo daitekeen mendatea hasiko da: **Gasteizko** mendatea. Azkarra eta teknikoa da; jaitsierak **Vitoria-Gasteizera** eramango zaitu.




**Salburuko parkea.**



**'On the road'.**



**Hirigune zaharra, airetik.**



**Vitoria-Gasteizko Alde Zaharra.**

## Vitoria-Gasteiz

*Orain hautatu beharra sortuko zaizu: erdialdera joan, Erdi Aroko herrigunetik paseatu eta zerbait jan edo bideari ekin eta iparrerantz abiatu.*

[www.dia.yatukismo.eus](http://www.dia.yatukismo.eus)



**Santa Maria katedrala.**



**Done Bikendi Martiriaren eliza.**

Batera zein bestera, Los Herrán eta Legutianoko Atea kaleetatik irten behar duzu hiritik. Gero urtegiara jo behar duzu Arabako motorzaleen lekurik maiteenetako bat gozatzeko: urtegioko errepeidea.

## Uribarriko urtegia

A-3002 errepeideari ekin, zeharkatu **Durana**, **Mendibil** eta **Arroiabe**, presara heldu, asfalto oneko bihurgune oso tekniko batzuk gainditu, bai eta “bainuontzi” bat edo beste ere, eta **Landara** helduko zara **Uribarriko urtegia** ingu-

ratuta. Handik beste urtegi batera joan behar duzu: **Legutiokora**. Utzi **Landako** bidegurutzea eskuinean eta gelditu stopear; biratu 180 gradu eta sartu A-627 errepeide azkarrean. Adi ibili eta hartu eskuineko bidea, **Larrabeko** golf zelaiakoa, A-3006 errepidetik, paraleloan; laster batean N-240 errepeidean sartuko zara eta **Legutio** eskuintean edukiko duzu.

## Legutioko urtegia

Beste urtegi bat duzu aurrean. Errepeideko tarte labur batean hainbat bihurgune aurkituko dituzu, ezkerrean **Elosua** eta **Ollerietta** dituzula. Adi ibili: ezkerrean **Etxague**nera doan A-3608 errepi-dearen lotunea dago.

Arabako parke natural handienara inguratzen ari zara, **Gorbeia**ko parke naturalera. Hurrengo tartean, **Gopegirainokoa**, errepeidea estua da berriz ere, baina ikuspen handia dago eta gozagarria da. Gopegitik aurrera **Gorbeia** mendia inguratuko dugu A-3610 errepidetik; lehenengo **Manurga** joko dugu, gero **Zarate** eta, azkenean, **Murgia**.

Legutioko urtegia.

## Murgia

Hauxe da bihurgune andana amaigabea! **Bilborantz** zoaz, baina ez dizugu utziko autobidearen tentaldian jausten. Zeharkatu **Murgia** eta irteeran hartu A-624 errepidea **Altuberantz**. Mendateko bidea ederra da, eta mendia oso

erakargarria perretxikozaleentzat. Autobideko bidegurutzerainoko jaitsiera azkarra eta teknikoa da (kontuz ibili erradio handiko bihurguneekin). Egin bira indonesiarren erara **Amurriorantz** eta hurrengo tartean (goraka) asfalto berria aurkituko duzu.

## Amurrio

Las Chozas. Makurraldi luzeak. Igo eta jaitsi, A-624 errepidetik irten gabe. **Amurriora** iritsitakoan eskuinera jo eta A-625 errepidea hartu behar duzu **Laudiorantz**.

## Laudio

Azkarra. Trafikoa; **Bilboko bidea** gaude. Txakolin lurraldea da! Zeuk erabaki behar duzu,

noski, baina era honetara **Araba** zeharkatu dezakezu bi noranzko errepiderik ukitu gabe. Iparralde industrialera zain duzu. Ondo ibili eta eman argiak!

# IBILBIDEA: Haranak, Lautada eta Mendialdea

*Larunbat goiza da; goizean goiz, gosari ederra ipini digute mahaian. Atzo **Vitoria-Gasteizera** iritsi ginen eta ez genuen eduki inolako arazorik ostatua eta jateko lekua aurkitzeko.*

*Gaur **Araban** zehar ibiliko gara, hiriburua inguratuta. Begirada zabala botako diogu lurraldeari,*

## **LASAI ETA LARRITU GABE,**

*zailtasun handirik gabeko errepideak hautatuko ditugu, baina egongo da tarte teknikoren bat edo beste ere, eta geldialdi zentzuzkoak ere bai, jakina.*





## IBILBIDEKO TOKIAK

1. Vitoria-Gasteiz **N-102**
  2. Santa Katalina **A-3302**
  3. Añanako Gatz Harana **A-2622**
  4. Varonatarren dorrea **A-2625** **BU-556**
  5. Nerbioi ibaiko ur jauzia **A-2625**
  6. Kexaa **BI-625** **A-625** **A-624**
  7. Okondo Txakolina **A-3641**
  8. Laudio **BI-2522** **A-2522** **A-624**
  9. Gorbeiaiko Parke Naturala **A-3610**
  10. Zadorrako urtegiak **A-3608**
  11. Zaldueño **N-240** **A-627** **A-3014**
  12. Agurain **A-3018** **A-3016**
  13. Opakua **A-2128**
  14. Done Bikendi Harana **A-2128**
  15. Kanpezu **A-132** **A-3136**
  16. Izkiko Parke Naturala **A-4124**
  17. Maeztu **A-132** **A-2130**
- Vitoria-Gasteiz **A-3102**

Luzera: 261 km






## NON GELDITU ETA ZER IKUSI

*Hoberena hiriburutik gasolindegi batetik irtetea da, zuzenean errepi-dean sartzeko. La Antonia izeneko biribilgunean gasolindegi egokia daukagu: erregaia hau eta **Armen-tiatik** hegoalderantz abiatu ahal izango gara, **Añanako Gatz Haranerantz**. Horixe da gaurko xedea.*

*Biltegiak bete eta azkar joango gara noranzko biko N-102 errepidetik Madril-Burgoserantz; minutu batzuk igarota **Langraiz Okako** bidea aurkituko dugu.*

*Geroago herri hori (Arabako seigarren handiena) zeharkatuko dugu, baina orain ezkerrean utzi eta aurrera egingo dugu eta pare bat minututan **Trespuesera** helduko gara; negua ez bada, **Santa Katalinako lorategi botanikoa** bisitatu ahal izango dugu, gorputz ariketa apur bat egiteko.*



**Zadorra ibaia** ondoan dugula,  
herria atzean utziko dugu,  
erdialdera joateko aldapetan  
sartu gabe, eta malda gogor  
batean gora hasiko gara eta  
luze gabe aparkalekua ikusiko  
dugu. Hemen dugu gaurko  
lehen geldialdia:

## Santa Katalinako Lorategi Botanikoa

Ia mila landare espezie eta  
XIII. mendeko monasterio  
baten aurri atonduak Badaia  
mendilerroan. Espainiako  
lehen izar parkea da, zerua  
gauzez behatzeko paraje ezin  
egokiagoa baita.

Lorategia ikusi ondoren atzera egin behar dugu eta berriz ere **Langraiz Okara** jo behar dugu A-2622 errepidetik. Gelditu egin gaitezke edo zeharkatu eta Bóveda-Pobeserantz jo, Gatz Harana xede hartuta.

**Pobesko** trenbideko pasagunea atzean utzi ondoren, La Tejerako mendateko bihurgunean abiadura er-tainean hartu ahal izango ditugu (asfaltoa ona da). Ferra bihurgune bat igoe-ran, pare bat bihurgune itsu jaitsieran eta beste bi ferra bihurgune **Gesaltza Añanara** iristean: hauetan arreta apur bat zoliagoa behar da.



## Eta Gesaltza Añanara iritsiko gara (Gatz Harana)

7.000 urte baino gehiago lehorreko gatz sortzen. Nork esango luke diapiro hau itsaspean egon zela! Nolanahi ere, badaude mikrokrustazeoak hala izan zela frogatzen dutenak. Merezi du bisita gidatua erreserbatuta edukitzea “larrainak” ikusteko eta “urre zuria” erostea (gaur egun hainbat mota desberdin daude)!









Har dezagun motorra berriro eta egin ditzagun kilometro batzuk **Añanako Kuadrillan** barna. Bada garaia hirugarren eta laugarren martzez

baliatzeko eta eragozpenik gabe bihurgunez bihurgune ibiltzeko.

**Espejo** herrira iritsiko gara; zeharkatu eta **Villanañera** helduko gara. Horretarako, A-2625 errepidetik irten behar dugu apur batez; ezinbestekoa dugu, ez baita galtzekoa Erdi Arora itzultzeko aukera hau: Varonatarren dorrea, XIV. mendeko gotorlekuetatik ondoen artatu direnetako bat, babes hobia ere badaukana.

## Añanako Kuadrilla



**Varonatarren dorretxe-jauregia (Villañane).**

Atzera egin behar dugu apur bat eta berriz ere Arkamo, Gibijo eta Arrastaria mendilerroen ondotik doan errepidea hartu behar dugu.

Arabako seinaleak desagertu eta Burgoskoak agertuko dira, EA Eren eta Gaztelaren arteko mugan gabiltzan seinale; Urduñako mendate mitikoa dugu xede.

**Karkamo, Fresneda, Osma, Berberana.** Errepideak ez du eragozpenik jartzen! Aski dugu sestra aldaketa batzuetan kontuz ibiltzea eta Urduñan gora hasiko gara. Hemen zorua aurreko tartean baino apur bat bihurriagoa da,

baina geroz hobea da mendatean gora egin ahala. Dena dela, oraindik geldialditxo bat egin behar dugu, argazki eta guzti!



**Nerbioi ibaiko ur jauzia (sorburua).**

*Lehenengo aparkalekua ikusiko dugu; aurrera egin behar dugu pago artean, eta kontuarekin, zoruak ez baitu itsaspen handirik. Hirugarren (azken) aparkalekura iristen garenean, penintsulako ur jauzirik handiena ikusiko dugu, 300 metro, baldin eta duela gutxi euria egin badu:*

## **Nerbioi ibaiaren sorburua**

*(Araba, Bizkaia eta Burgos artean)*



**Gorobel mendilerroa.**

*Bira egin eta Urduñara jaitsiko gara! 8 kilometroko tartean hamar bat ferra bihurgune gainditu behar ditugu 900 metroko garaieratik 300 metrokora jaisteko. Badakizue nola: motor frenoa, muturre-ra zabaldu, motorra beldurrik gabe makurtu, atzeko balazta lema modura erabili y... hurrengora!*



## Arabako txakolina

**Urduña**, Bizkaiko “hiri” bakarra (hala du titulua), atzean utzita, berriz ere errepide zuzena **Saratxo**, **Amurrio** eta **Arespalditzarantz**. Adi trafikoari! Jarri arreta bidea eta ez galdu **Kexaa-Quejana** seinaleak adierazten duen bidea. Bazkaltzeko ordua gainera etorri zaigu. Txakolin lurraldean gaude! Geldituko gara **Kexaan** bazkaltzeko eta gero txakolin bila joan **Okondora**? Ideia ona!

Txakolin mahastiak.



*Bestela, Laudiora joan gaitetzeke, Gardea edo Artomana arakatu, eta gauerako ostatua aurkitu. Laudio eta Amurrio industria herriak dira; nonahi daude landa turismoko etxeak. Txakolina eta gazta ederrak diren alde honetan jan eta arratsalde lasaia eman ondoren, ez da batere zaila izango ostatua aurkitzea:*

**Aiara ibarrean gaude**

**Aiala kantzeleriaren eta beraren emazte Leonor de Guzmanen hilobia, Aialatarren jauregiko dorreko kaperan.**

## BIHAR MENDIRA JOANGO GARA. IGANDE BIHURGUNETSUA!

Har dezagun A-2522 errepidea. Errepide polita da, baina baliteke heze egotea; erritmo onarekin ekingo diogu bidaiari Altube gainerantz. Gorbeia mendi ezagunera eta bertako parke naturalera (Euskadiko handiena) hurbilduko gara.

### Gorbeiako Parke Naturala

Aldi batez, **Orozko** eta **Baranbio** zeharkatzean, moteltxo ibiliko gara, baina 20 minututan Altube gainera iritsiko gara, aurpegi argi-argi dugula landare arteko bihurguneez sortutako irribarrea. Eta gehiago ere egongo dira. Hartu gogoan Gorbeiako parke naturaleko sarbideak, beste egun batean oinezko txangoa egin nahi bagenu ere.

Bien bitartean, autobia gaitetik pasatuko gara **Ametzaga-Zuiara** bidean; A-3600 errepidetik zeharkatuko dugu, gero, handik hurbil, **Murgia** joko dugu eta A-3610 errepideari ekingo diogu **Zaraterantz**.



Gorbeiako gurutzea.





Zadorrako urtegia.

*Gorbeialdean gaude; errepidea estutu da, baina zorua ona da eta eremuetako ikuspen onari esker bizi-bizi ibil gaitzke.*

*Hurrengo herria **Manurga** da eta hurrengo arretagunea **Gopegi**. Hor ezkerrera egin behar dugu; Gorbeia izango da erreferentzia, orain arte bezala, eta A-3608 errepidea helburua. Are estuagoa da, baina ikuspen onekoa, eta gozagarria. Kontuz herriguneeekin, nekazaritzako ibilgailuekin eta abere taldeekin!*

**Larrinoa, Murua, Etxaguen**, ikuspen oneko bihurguneak jaitsieran, zuzen bat edo beste Gorbeiatik urrundu ahala eta, azkenik, N-240 errepidearen bidegurutzea. Errepide hori **Bilbo**-ra doan Barazarretik. Gu, baina, **Araban** geratuko gara, oraindik Mendialdea ikusi behar dugu eta!

*Hurrengo erreferentzia **Legutio** izango da. Handik azkar pasatuko gara eta berehala ezkerrera jo behar dugu (adi ibili bidegurutzean) A-3006 estua hartzeko; bidea **Larrebeko** golf zelaiaren ondotik doa. **Landara** goaz, urtegiko hiriburura!*

## Arabako Lautada

Pasagune estuak eskui-  
nean ditugu. Aurrean  
Gipuzkoa dago. **Landara**  
heldutakoan A-3014  
errepidean sartuko gara  
eta, oso hurbil dagoen  
**Vitoria-Gasteiz**era itzuli  
beharrean, Arabako Lau-  
tadan barneratuko gara,  
Mendialdea xede hartuta.

Parkearen ondoan, urtegi-  
tik hurbil, **Marieta** ezke-  
rrean utzi eta bizikletaza-  
le ugari ibili ohi den bide  
estu baina nahiko egokiak  
**Ozaetako** bidegurutzera  
eramango gaitu. Gelditu  
poliki-poliki stopean eta  
egin bira ezkerrean A-3012  
errepidea hartzeko!

Errepide honetan arretaz  
ibili behar da. Eskuinean  
Arabako Mendialdea iku-  
siko dugu eta ezkerrean  
Elgea mendilerroa. **Ozae-  
ta, Hermua eta Larrea**  
herriguneak zeharkatuko  
ditugu. Alde honetan gaz-  
tandegi bikainak daude;  
nonahi geldi gaitzke

gazta ederrak gozatzera.  
Ondoren zuzenak datoz  
eta azkarrago ibil daiteke.  
Jokatu senez, geldiro  
**Narbaizan** zehar, gero  
Lautada berriro **Gordoa**  
eta **Galarretaraino**, eta  
azkenik **Zalduendora**  
iritsi. Herri honetan bizi  
izan zen Zeledonio, Gas-

Agurain-Salvatierra.

teizko Zeledon ezagunaren sorburuan dagoen jaizale amorratua. Gainera, **Zalduendoko** inauteria Arabako interesgarriena da etnografiaren aldetik! Orain arteko errepidetik irten behar dugu; herria zeharkatu, eskuinera biratu eta A-3018 errepidea

hartu behar dugu **Agurain**erantz joateko.

Paisaia etengabe aldatzen da, baina zereal eta patata soroek argi erakusten dute oraindik Lautadan gaude-la. Asfaltoaren "gripa" ez da lehen bezalakoa, baina ikuspena ona da; **Ordo-**



**Santa Maria eliza (Agurain).**

**ñana** azkar asko zeharkatuko dugu eta berehala **Agurain**era helduko gara. Une aproposa kafea, salda edo beste zerbait edateko, eta egiaztatzeko nondik joko dugun Arabako Mendialdera. Gainera, inguruetako trikuharrien berri bildu dezakegu.



## Trikuharriak

**Aizkomendi eta Sorginetxe** beste egun batean txangoa egiteko utziko ditugu; orain aurrera egin behar dugu, eta Foruak kalea igaro ondoren N-1 errepidea gainditu A-2128 errepidetik **Opakuara** joateko. Herri horretan izen bereko mendatea hasten da; Mendialderako sarbidea da. Segi dibertitzen!

## Arabako Mendialdea


Opakua mendate zaila da: malda gogorak, azelerazio guneak eta bihurtune batzuetan balaztei tinko eragin beharra motorra ondo bideratzeko. Gaietan landaretza desagertuko da; goi ordokia zeharkatu ondoren **Kontrastarantz** jaisten hasiko gara. Asfaltoa ona da. Kontu handiarekin ibili eta haran batera helduko gara: Harana.

Eliza erromanikoak, Erdi Aroko jauregiak, Vasco-Navarro trenbide zaharreko, golf zelaia, Izkiko Parke Naturala... hartu denak gogoan hurrengo baterako!

## Izkiko Parke Naturala

Jateko aukera onak aurkituko ditugu **Done Bikendi Haranan** eta **Oteon**, A-2128 errepidean, eta gero **Santikurutzeko Kanpezun** eta **Antoñanan**, A-132 errepidean. Galdetu boilurratik eta odolosteagatik, ahaztu gabe.

Arratsaldea ondo aprobetxatu dugu eta motorzaleontzat ezin hobeak diren Izkiko Parke Naturaleko errepideetan zehar zentzuzko ordu batean helduko gara **Vitoria-Gasteizera**. **Antoñanan** A-132 errepidetik irten behar dugu eta A-3136 hartu Bujandarantz. **Bujandaren** ondotik **Durruma Kanpezutik** pasatuko gara eta berehala errepidearen maila beste koska bat makalduko da: A-4124 errepidean sartuko gara eta **Korres** igaro ondoren **Maetzura** joango gara.



Izkiko Parke Naturala.



Sorginetzeko trikuharria.



**Entzia mendilerroa.**

*Errepidea estua da eta zuloren bat ere badago, baina bihurguneak zabalak dira. Tarte honetan motorraren indar pareaz baliatuko gara. **Maetzura** iritsitakoan A-132 errepidea hartuko dugu berriro, Lizarrako errepidea, eta **Vitoria-Gasteizera** itzuliko gara Azazetako mendate teknikoa azkar eta atseginez igo eta jaitsi ondoren.*

**Arkartzako** bidegurutzea **Otazurantz** jo behar da A-2130 errepidetik; horrela **Vitoria-Gasteizera** ekialdetik sartuko gara eta bi aukera edukiko ditugu bidean aurkitzen dugun lehen biribilgunean: bigarren irteeratik erdialdera joan edo bosgarren irteeratik kirolgune-ra joan. 300 kilometro ere ez ditugu egin eta izan litezkeen paisaia guztiak ikusi ditugu.

## **HORRELAKOXEA DA ARABA! IKUSI ARTE!**

# IBILBIDEA: Gazteluak eta ardoa

**INORK ESATEN BADU ASTEBURUA EMAN DAITEKEELA ARABAN ETA 200 KILOMETRO BAINO GUTXIAGO EGIN MOTORREAN, ZERBAIT GAIZKI DABILELA PENTSATUKO DUZUE. BAINA EZ DA HALA!**

**Vitoria-Gasteiztik Trebiñura joan, Arabako Errioxan zehar ibili eta gero Mendialdetik itzultzea pare bat orduko "estripada" izan daiteke, edo hirukoa, pintxo batzuk jateko geldituz gero,**

*baina ibilbide berak asteburu osoa gozatzeko aukera ere ematen du, Arabako eskualde horrek eskaintzen duen guztiari ondo helduz gero. Hoberena izango litzateke alde zurretik Ara-*

*bako Errioxako Ardoaren Ibilbidea aztertzea Interneten eta erabakita edukitzea zer upeltegi bisitatu, non jan eta non lo egin. Izan ere, hain da handia eta zabala eskaintza!*





## IBILBIDEKO TOKIAK

1. Vitoria-Gasteiz **A-3102**
2. Zaldiaran **BU-742** **CL-127** **BU-744**
3. Berantevilla **A-3122** **N-124**
4. Gazteluak eta Ingleseko ibilbidea
5. Urizaharra **A-3126**
6. Errioxako begiratokia **A-2124**
7. Samaniego **N-232a**
8. Elciego **A-3214** **A-3212**
9. Lapuebla de Labarca **A-4208**
10. Guardia **A-3216** **N-232a**
11. Bilarko trikuharria **A-3228**
12. Oion **A-3220** **A-4209** **A-2126**
13. Moreda Araba (olio errota) **A-3226**
14. Labraza **A-3230** **A-4211** **A-3230**
15. Bernedoko mendatea **NA-7242**
16. Bernedo **A-2126** **NA-7210** **A-2126**
17. Lagran (pagadia) **A-3130** **A-3132**
- Vitoria-Gasteiz **CL-127** **BU-750** **A-2124**

Luzera: 181 km



## Zaldiaran (Gasteizko mendiak)

Beraz, ekipaje arina pres-tatu, hartu gasolina eta abiarazi motorra goizean goizik; **Vitoria-Gasteizko** kirolaldetik (Mendizorrotza) Zaldiarango mendaterantz joango gara. A-3102 errepidetik

**Berrostegietara** helduko gara berehala; hemen inguruko txirrindularien eta motorzaleen ibilbide ezaguna hasten da. Zaldiarango mendatea laburra eta dibertigarria da! Asfaltoak ondo helt-

zen die gurpilei, bihur-gune geldoen ondoren hirugarren martxan egin beharreko zuzenak daude (gehiago erabili behar da pareta balaztak baino) eta halako batean, pilotu itzela zarela pentsatzen

hasten zarenean, igoera amaitzen da eta **Trebiñurako** jaitsiera estua hasten da. Errepidea gutxika-gutxika zabaltzen da eta laster atzera "berotuko" gara. Minutu gutxiren buruan **Trebi-**

**ñura** helduko gara BU-742 errepidetik. Hemen, ohikoa eskuinera biratzea eta Mendialdera edo Arabako Errioxara joatea da, baina gaurko osteran beste bide batetik joko dugu! Eskuinera egingo





dugu, bai, baina Miranda de Ebrorantz joko dugu BU-744 errepidetik, CL-127 errepide zabalagoa lotune modura erabili ondoren. Ia konturatuta ere egin gabe, argi-itza-len artean, eta bihurtune

zail gutxi pasatuta, **Burgosetik** irten eta **Araban** sartuko gara. Aurrera egin eta **Mijancasera** heldu baino lehen A-3122 errepidearen seinalea ikusiko dugu. **Berantevillara** eramango gaitu.

## Berantevilla

**Miranda de Ebroko** industrialdea ikusiko dugu urrunean; N-124 errepideko noranzko biko tarte labur bat

zeharkatuko dugu **Zanbranara** joateko. Berriz ere eskualde errepideetan sartuko gara.

Oraingoa A-3126 da! Lehen tarteaz azkarra da, zuloak egon arren;

hurrengoa, aldiz, iluna eta estua da, eta geure trebeziak baliatu behar harko dugu **Santa Cruz del Fierro** estua zeharkatu arte.



## Gazteluen ibilbidea

Luze gabe **Oziora** iritsi-ko gara. Handik hurbil **Portilla dago**. Geldialditxo bat egin dezakegu ibilbide honetako bi gaztelu horiek ezagutzeko. Gero **Bergantzurantz** jarraituko dugu.

Ozioko gaztelua.



Herrerriasko ur jauzia.

## Inglareseko ibilbidea

*Hemen bai, gelditu eta “gose” egin gaitzke Ingla-  
reseko ibilbidean barna apur bat ibiliz! Ibai txikia da,  
baina behinola energia iturri ederra izan zen. Gertuko  
ur jauzietan dago gakoa!*



Bidean.

## Urizaharra

*Errepide beretik (zilindrada ertaineko trailak bizkor ibiliko dira) Arabako Mendialdearen ateetako batera helduko gara, **Urizaharrera**. Harresiko hegoaldeko ate ikusgarriak argazki kontrapikatura egitea merezi du.*



**Urizaharra.**

*Hurrengo datorkiguna **Arabako** bizikletazale eta motorzaleen beste klasiko bat da: **Herrera**. A-2124 errepidetik Arabako Errioxaren mugan dagoen mendate mitikora helduko gara.*



*Kontu handiz ibili behar da; asfaltoak itxura ona dauka, baina itzalpeko tokiak heze daude. Azkar ibiltzeko moduko bihur-guneak daude, baina gero kontraperalteak daude, eta txirristaitsuak ere bai, eta larri ibil gaitzeko abiadura moteldu ezean. Gaina jo, beheraka hasi, ferra bihur-gunea pasatu eta berehala:*

## **Errioxako begiratokia**

*Ondoren Herrerako jaitsiera dator. Bi ferra bihur-gune eta "fedez" egin beharreko bihur-gune zabal batzuk (denetariko erradioak). Pare bat minutu gozaten eta **Lezako** bidegurutzera iritsiko gara. Aukera asko daude. Erreferentzia **Guardia** izango da, ezkerrean, kilometro gutxira. Geroko utziko dugu. Bertan egingo dugu lo, seguruenik.*

## **Samaniego**



**Mahastiak Arabako Errioxan.**

*Gelditu eta munduko ardo lurralde hoberenaren ikuspegi panoramikoa gozatu dugu, Toloño mendilerro ikaragarria atzean dugula.*

*Beraz, eskuinera jo eta N-232 errepidetik azkar helduko gara **Samaniegora**. Izen bereko jauregia bisitatu daiteke; toki egokia da Arabako Errioxan barneratzeko.*



Elciego.

## Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea

Orain errepede nagusitik irten behar dugu eta ezkerrera biratu A-3214 errepede estutik **Eskuernagara** joateko. Upeltegi ugari eta hotel eskaintza zabala geroko!

### Elciego

Lasai ibiliko gara eta, arreta mahasti arteko galtzada estuan ipinita, **Navaridas** zeharkatu eta **Elciegora** helduko gara. Geldialdia!

Izan ere, inguruko upel-tegi nagusietako baten eraikina Frank Gehry arkitektoak diseinatu zuen, Bilboko Guggenheim museoaren diseinatzailerak, eta, beraz, ezinbestean bisitatu behar dugu, batez ere jakinik maila goreneko jatetxea eta hotela ere badaudela.

### Lapuebla de Labarca

Titaniozko gainalde bihurtutako distirak salatuko dituzte heldu ari garela. Hemen geldituz gero, etorri garen bidetik atzera egingo dugu metro batzuk eta **Lapuebla de Labarca** joko dugu A-4208 errepedetik.

### Laguardia

Tarte hau ere oso egokia da bihurguneak erritmo onean kateatzeko. Orain A-3216 errepedea jo behar dugu; trazadura modernoagoko errepede honek lasai-lasai eramango gaitu **Guardiara**. Erabaki beharra dago: bazkaldu edo ardoaren eta pin-txoen ibilbidea egin Erdi Aroko kaleetatik!

Aurrera egin dezakegu apur bat eta Arabako beste trikuharri alde bat ezagutu eta **Bilar** bisitatu; gero, **Guardiara** itzuli eta gaurkoa eginda dagoela erabaki dezakegu.

Nolanahi ere, bidean zeharkatu ditugun herrietan ere gauza bera egin dezakegu, denek ere beren eskaintzen berri ematen baitute.

Beraz, utz dezagun motorra alde batera eta goza dezagun hautatzen dugun gustuko taberna, hoteltxoa edo landetxea. Dena dela, presaka ibiliz gero, ez dago gaua eman beharrik. Ostatua hartuz gero, berriz, hurrengo goizeko gosarian ez dadila falta inguruko olioia. Izan ere, hurrengo xedea olio errota dugu! **Guardiatik Bilarko** bidegurutzea jo behar dugu eta han A-3228 errepidetik abiatu.

## Bilar

**Bilar** eta **Kripan** zeharkatzean begi bat mahastien eta zereal soroen artean doan galtzada estuan eduki behar da eta bestea mendilerro ikaragarrian. Tarte honetan azeleratzen eta balaztei eragiten ibil daiteke; gero "dukateatu" egin beharko dugu.

Kontuz **Benasperiko** zuzenean, bidegurutzean eskuinera egin behar da eta A-4209 errepidea hartzeko. Ondoren **Iekorara**.

Errepide berria hobexeda, baina antzekoa, funtsean. Ez fidatu! A-2126 errepidetik Arabako herri nagusietako batera helduko gara: **Oion**.

## Oion

Herriaren erdigunera joan behar dugu Aldundiaren etorbidetik; gero ia 180 graduko bira egin behar dugu eskuinera eta Nafarroako etorbidetan gora **Moredarantz** irten A-3226 errepidetik. Horixe da gure xedea: **Moreda**.

## Moreda Araba

Ardo eta olio lurraldea da. Aurki dezagun errota, dasta dezagun arroniz bariatateko olio leuna, eta sar dezagun botilatxoren bat motxilan edo maletan. Hurrengo geldialdia: **Labraza!**

Bilarko trikuharria (Sorginen Txabola).

San Martin eliza (Leza).

## Labraza

**Moredatik** A-3230 errepi-  
detik irten eta **Labrazako**  
bidean paisaia aurrekoa  
bezalakoa da. Herria  
muino baten gainean  
dago; duela urte batzuk  
herri harresidunen mun-  
duko saria eman zioten.  
Bertan bizitzen gelditzeko  
gogoia ematen du, baina

*aurrera egin behar dugu  
eta motorrean ibiltzen  
jarraitu!*

**Barriobusto** igarota  
**Nafarroako** mugara  
hurbilduko gara NA-7242  
errepidetik. Igoera di-  
bertigarri baten ondoren  
**Meano** eta **Lapoblacio-**  
**nera** helduko gara; herri  
hauek ezagunak dira

*ogiengatik eta heste-  
beteengatik. Eskuinean  
Lehoi Lotia haitza dago,  
etengabeko laguna dugun  
mendilerroko tontor go-  
rena. Ez gaitzala beldurtu  
**Logroño**ko seinaleak  
(L-126), Nafarroakoarekin  
eta Arabako A-2126 erre-  
pidearekin tartekat-  
zen denak. Hiru erkidegok  
bat egiten dute hemen!*

## Bernedoko mendatea

*Gainetik Arabako Men-  
dialdean behera hasiko  
gara. **Bernedoko** men-  
datean gaude. Asfaltoak  
gurpilei eusten die, gurpil  
babesa dago, trafikoa  
ohikoa da eta trazadak  
teknikoak.*

## Bernedo

**Bernedora** iritsitakoan  
bururatuko zaigu badela  
garaia errepidea zertxo-  
bait askatzeko eta trazada  
zabalagoak egiteko aukera  
emateko, pago artean. Buru-  
ratu eta gertatu. Kontura ere  
egin gabe A-3130 errepidean  
izango gara eta **Lagran**  
edukiko dugu aurrean.

Labraza.



## Lagran

Arrocina indaba ikusten badugu salgai (**Villa-verden**, esaterako), ideia ona izan liteke zakutxo bat erostea. Ondoren errepideari ekin eta Lagranera helduko gara, pagadi artean. A-3132 errepidetik **Baxauri-**

*rantz abiatuko gara eta Trebiñuko Konderria sartuko gara (CL seinaleak).*

*Ahazu beharko dugu duela segundo batzuk pagoen itzalpean genbiltzala, duela minutu batzuk harkaitz soilen artean eta duela ordu erdi mahasti artean.*

**Baxauri, Albaina eta Argote** izango dira erreferentziak **Ventas de Armentia**ko bidegurutzera iristeko. Bai **Argotera**, bai **Ventas de Armentia**ra bazkari “ugarien” zale asko biltzen da. **Vitoria-Gasteiz** hurbil dago.

*Zeuek aukeratu!*

*Dena den, **Ventas de Armentian** eskuinera eginez gero, **Uzkiano** eta **San Vicente** jarantz, A-2124 errepidera itzuliko gara eta bertan zehar Gasteizko mendatea igo beharko dugu. Modu egokia izan daiteke injektoreak “garbitzeko”, gurpilak “berdintzeko” eta gaurko os-teratxoari amaiera emateko. Nork pentsatuko zuen hain ederra izango zela!*



alava  
turismo.  
eus

araba  
álava



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava